

Egitaraua

9:30 Frotoian txistulartien **elkarretaratzea**

10:30 Udaletxe plazatik **kalejira**

11:20 Sagasetari **harrera** herriko sarreran, segizioa
udaletxeraino eta **agintarien harrera**

12:00 EHTEren urrezko domina ezartzeko **ekitaldia**, Urdiaingo udaletxean

12:30 **Hamaiketakoa**, Urdiaingo Udalaren eskutik

13:00 Txistularien **kontzertua** herriko plazan. Aita Migelek jasotako jauzi
eta dantza soinuak:

Jean Mixel Bedaxagar, Luzaideko bolantak, Urdiaingo txistulari eta dant-
zariak, Ortzadar dantza taldea eta Euskal Herriko txistulariak

14:30 Anai arteko **bazkaria** Urdiaingo frontoian

Programa

9:30 en el frontón encuentro de txistularis

10:30 **kalejira** de txistularis desde la plaza del Ayuntamiento

11:20 En la entrada del pueblo **recepción** a Sagaseta, la comitiva se des-
plazará al ayuntamiento y **recepción de autoridades**

12:00 En el ayuntamiento, **acto** de concesión de la
medalla de oro de EHTE

12:30 **Hamaiketako** cortesía del Ayuntamiento de Urdiain

13:00 **Concierto** de txistularis con melodías y jausis
recogidos por Aita Miguel:

Jean Mixel Bedaxagar, Luzaideko bolantak, Urdiaingo txistulari eta dant-
zariak, Ortzadar dantza taldea y Euskal Herriko txistulariak

14:30 En el frontón de Urdiain, **comida** de hermandad



Urdiaingo Udala
Ayuntamiento de Urdiain



MIGEL ANJEL SAGASETA ARIZTEGI

TXISTULARI ELKARTEKO
URREZKO DOMINA EMATEA

IRAILAK 15
URDIAIN (Nafarroa)

Concesión de la medalla de oro de EHTE
15 de septiembre Urdiain (Navarra)



Miguel Angel Sagaseta Ariztegi **1941**. urtean jaio zen **Iturenen**, bere aita dantzan ikusiaz, laster hartu zion gustua dantzei, "ederki egiten zuen dantza, lehenetarikoa izan ohi zen zortzikoa dantzatzera irteten". Baita, bere anaia **Aurelio** ikusiz, **Juan Miguel Biurrarena** Izkiboren txistu horietako bat jotzen.

Urteak aurrerago, seminarioan ikasten zegoelarik heldu zion solfeo eta txistuari, hala ere, bere anai Aureliok dioen moduan, "Migel Angel autodidakta da".

1966an, apaiz ordendu zutenean, **Luzaideko Parrokia**-ren ardura hartu zuen eta han... baina onena, Sagaseta beraren berbetan entzutea: "Bolanteak dantzan ikusten nituenean, beraientzat zerbait magikoa, sakratu zen, handitasun, dotoreziaz eta elkarren arteko sinkronizatze erabatekoaz egiten zutena, gogoeta egin nuen orduan latza izango zela dantzok galtzea, eta biltzeari ekin nion, baina askozaz gehiago ziren eta guztiak bildu behar izan nituen". Gauzak horrela gainerako herrietara joan zen **Aldude, Arnegi, Azkarate, Banka, Baigorri, Donaisti, Donapaleu** e.a. Ahal zuen guztia jasoz.

Esan beharra dago, motorrean **Lapurdi, Behe Nafarroa** eta **Zuberoan** zehar ibili zela, etxez etxe eta herririk herri, berri eman eta abestu egiten zizkieten Jautzi eta musikak batuz, gogoan du, batzuetan, sei aldiz ere itzuli egin zela pertsona berarengana elkarrizketa errepikatuzera, zalantza guztiak uxatu eta jasotakoa zuzena zela ziurtatu arte.

Bilketa lanean osatutako Jautzi eta musika bildumarekin, **1977**. urtean **Luzaideko lantzak** izeneko lana argitaratu zuen, liburua erabateko arrakasta izan zen, denbora motz batean jada agortu zelarik. Liburuaren aurretik, Migel Angel Sagasetak **Estudio de los bailes de Valcarlos** artikulua plazaratu zuen Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra aldizkariako 20. zenbakian.

1973an **Leitzara** leku aldatu zuten, eta bertan bertako txistulariak grabatu zituen, bildutakoa pentagramara

aldatuz eta txistu eskola bat sortuz, berriz leku aldatu zutelarik **Etxarri Aranatzera**, pilatutako grabazio eta partiturak, berak sortutako eskolari oinordetzan utzi zizkion oro. Gaur egun, erretore moduan dihardu **Urdiainen**, herrikoen maitasun eta begirunearen jabe.

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak, martxoak 10ean Murgian burututako Batzar Orokorrean, gehiengo osoz erabaki zuen elkarteko **urrezko domina** ematea, Behe Nafarroako folkloreaken zatirik handienaren bilketa lanean egindako merezimenduengatik.

Migel Anjel Sagasetaren ekarpen honegatik ez balitz, gaur gure herriko plazetan dantzatzen diren Jautzi anitz galduak lirateke.



Miguel Angel Sagaseta Ariztegi nació en **1941** en Ituren, pronto cogió gusto por las danzas al ver bailar a su padre, "bailaba muy bien y era uno de los primeros en salir a bailar el zortziko" y a su hermano **Aurelio** tocando con uno de aquellos txistus fabricados por **Juan Miguel Biurrarena** Izkibo.

Años más tarde estudio en el seminario y allí, fue donde aprendió solfeo y txistu, aunque como dice su hermano Aurelio, "Miguel Angel es autodidacta".

En **1966** cuando fue ordenado sacerdote, tomo posesión de la **Parroquia de Luzaide** y allí... pero lo mejor es oír al propio Sagaseta: "cuando veía a los Bolantes bailando sentía que para ellos era algo mágico, sagra-

do, lo hacían de una manera majestuosa y en total sincronización entre ellos, pensé que pena si se perdieran están danzas, y me puse a recopilarlas, en un principio solo quería las de Luzaide, pero había muchas más y tuve que recogerlas todas". Así que se fue a los demás pueblos **Aldude, Arnegi, Azkarate, Banka, Baigorri, Donaisti, Donapaleu**, etc. Recogiendo todo cuanto pudo.

Hay que decir, que recorrió con su moto todo **Lapurdi, Behe Nafarroa** y **Zuberoa**, yendo de casa en casa y de pueblo en pueblo, para recoger toda música y Jautzis que le informaban y cantaban, recuerda que en algunos casos volvió hasta en seis ocasiones para entrevistarse con la misma persona, hasta que no tuviera ninguna duda que lo que le transmitían era lo correcto.

Con todos los Jautzis y música recopiladas, editó en **1977** el Libro **Luzaideko lantzak**, este libro fue todo un éxito se agoto en poco tiempo. Previamente al libro, Miguel Angel Sagaseta había publicado el artículo **Estudio de los bailes de Valcarlos**, que apareció en el número 20 de la revista Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra.

En **1973** fue trasladado a **Leiza** y allí grabo a los txistularis locales, pasando al papel pautado lo grabado y creó una escuela de txistu, cuando volvieron a trasladarlo a **Etxarri Aranatz**, legó a la escuela por él creada, toda las grabaciones y partituras, recopiladas. En la actualidad ejerce de párroco en **Urdiain**, donde es muy querido y respetado por todos los del pueblo.

La Asociación de Txistularis (Euskal Herriko Txistulari Elkarte) en asamblea General celebrada el 10 de marzo de 2018 en Murguía, votó de manera mayoritaria el concederle la **medalla de oro** de dicha asociación, por los meritos en la recopilación de gran parte del folclore bajonavarro.

Sin esta aportación de **Miguel Angel Sagaseta** muchos de los Jautzis que actualmente se bailan en nuestros pueblos y plazas se habrían perdido.